



# danbolin

2023 urria

253<sup>ak.</sup>



**Lide Jimenez**  
**Saguzarrek**  
badute lagun bat  
**Aizarnan**







675 965 116 iraopottoka@gmail.com



640 917 626



Portale Kalea 7, 20740 Zestoa  
tel. 943 147 088

txoko  
taberna

erdikalea 3  
tel. 943 147 196



tel. 943 536 314

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera  
07:30-13:30, 16:30-21:00  
Larunbat eta igandetan  
07:30-14:30, 17:00-21:00



943 147 657

MGS

Mutua General de Seguros

JAVIER ALBERDI

Aseguru agente eksklusiboa

Gesalaga, 18 behea · 20740 Zestoa  
T/ 943 89 71 01 · jalberdi@mgs.es



Zestoa  
AUTOESKOLA


Gesalaga 1

Tel. 943 148 524

20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa\_autoeskola@hotmail.com

943 147 344 Iraeta- Zestoa

Egun osoan irekia		Irekia 18:00etatik aurrera		Itxia	
<b>merenbero BEHOETXE</b>					
UZTAILA		ABUZTUA		IRAILA	
1 2 3	4 5 6 7 8 9 10	1 2 3 4 5 6 7	8 9 10 11 12 13 14	5 6 7 8 9 10 11	12 13 14 15 16 17 18
11 12 13 14 15 16 17	18 19 20 21 22 23 24	15 16 17 18 19 20 21	22 23 24 25 26 27 28	19 20 21 22 23 24 25	26 27 28 29 30
25 26 27 28 29 30 31	29 30 31	29 30 31		26 27 28 29 30	
URRIA		AZAROA		ABENDUA	
1 2	3 4 5 6 7 8 9	1 2 3 4 5 6	7 8 9 10 11 12 13	1 2 3 4	5 6 7 8 9 10 11
10 11 12 13 14 15 16	17 18 19 20 21 22 23	14 15 16 17 18 19 20	21 22 23 24 25 26 27	12 13 14 15 16 17 18	19 20 21 22 23 24 25
24 25 26 27 28 29 30	28 29 30	28 29 30		26 27 28 29 30 31	
31					



Erdikalea 5  
Telf: 943 14 73 22  
20740 Zestoa (Gipuzkoa)

AVA ASESORIA ARIN

ABOKATUA GESTORIA  
KONTABILITATEAK ZERGAK  
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA  
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGURUAU

Gesalaga kalea, 22 behea 20740 ZESTOA  
Tel./Fax.: 943 897 099 asesoriarin@asesoriaarin.com



Olaizola eta Uria kalea – Iraeta  
943 147 067



GARRAIO SISTEMAK  
ERREMOLKEEN SALMENTA  
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK  
KARABANA, AUTOKARABANA eta  
FURGONETETARAKO OSAGARRIAK  
KONPONKETA eta  
MANTENTZE LANAK

telf. 943 147 679  
www.caravan-park.net  
info@caravan-park.net

Gestoria Zubia

M<sup>a</sup> Jesus Zubia Olaizola

Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA  
Tel./FAX: 943 897 070



tel. 943 147 848 - 607 186 006



kutxi eta  
pentsuak

www.laiakdenda.com  
tfnua: 943148134

laiki.  
Lurraren onena  
Zestoaren bihotzean.



Landetxea  
eta  
jattetxea

943 148 005



943 052 761



ZESTOA  
Kale Okerra 3  
Tel. 943 14 72 69

Itzulpen eta  
argitalpen zerbitzuak, s.l

Itzulpenak baino  
askoz gehiago!

Bakun

Narkis Balentziaga, 2 T+34 943 148 306 bakun@bakun.eus  
20749 Arroa (Gipuzkoa) F+34 943 897 380 www.bakun.eus



665 49 07 73

KOIOTE

foru plaza, 4

tel. 943 147 095

Araneta  
ERRETEGIA

626 869 231 / 943 148 092  
erreserbak@aranetaerretegia.com



## Bidean

Bakoitzak bere bidea egin behar omen du. Horretan gabiltza denok, edo ia denok behintzat, geurea egin nahian. Noraezean askotan, edo jomuga konkretu batera beste zenbaitetan. Babesean, seguru eta lasai sentituko garen lekuaren bila.

Horixe egiten dute saguzarrek ere, babeslekuak aurkitu, eta ez dute lan makala. Lide Jimenez biolo- goak ondo ezagutzen ditu ugaztun horiek, eta haien inguruko datu oso interesgarriak kontatu dizkigu eskuartean duzun zenbaki honetan. Ba al zenekien munduan 1.200 saguzar espezie daudela? Edo ehiza gau batean saguzar batek bere pisuaren % 30 jan dezakeela intsektutan? Bitxia benetan!

Bidea hasi, egin, bukatu edo erdi bidean utzi, eta beste bat hasi. Beti esaten den moduan, bizitza etapak dira. Xuban Albizu eta bere kideek duela urte batzuk hasi zuten "Feel My Way" bidaia agen- tziaren bidea. Lau Iturri elkartearen ondoan dagoen lokalean dute egun egoitza. Askok ez duzue ja- kingo oraindik zer egiten duten zehazki leku horretan, eta datozen orrietan izango duzue haien lana- ren berri. Bidaia antolatzea du pasio Albizuk eta hori ofizio bihurtu du Akoako bizilagunak.

Niri ere iritsi zait Danbolinen egindako bidea bukatu eta berri bat hasteko eguna. Ohiana Calparsoro Arroabeko bizilagunak hartuko du testigua. Ilusioz betetako bide berriari ekingo dio Danbolinen. Le- rro hauek aprobetxatu nahiko nituzke zera esateko: Aurrerantzean hitzaldi, kontzertu, bilera, kon- tzentra eta gainerakoen inguruko informazioa Ohianari bidali, mesedez, kar-kar! Pazientziarekin hartu Ohiana. Lasai egon, ordea, herriak ondo zainduko zaitu eta. Zortzerik onena opa dizut bide ho- netan. Erraza izango da, lankide eta kolaboratzaile bikainak izango baitituzu ondoan, beti laguntzeko prest daudenak. Haiei esker, azken urte hauetan egin dudana oso erraza izan da. Toki guztie- tan bezala momentu onak eta txarrak daude, baina momentu onak gailentzen dira beti.

Tripako min pixka bat sortzen dit Danbolin atzean utzi eta irakaskuntza munduan murgiltzeak, bai- na bihotza bete maitasunekin alde egingo dut Kultur Etxeko bulegotik. Hori bai, erredakzioko kide izaten jarraituko dut, Danbolinek adikzio berezia sortzen du eta. Eskerrik asko benetan urte guzti hauetan ondoan izandako denoi, aurpegi txarrik jarri gabe hara eta hona argazkiak ateratzera la- gundu didazuenoi, purrustadak jasan dituzuenoi, badakizue nortzuk zareten. Baina eskerrik asko batez ere zuri, Jone, zu gabe ez zen inolaz ere berdina izango.

*itzago waliño errasti*



**DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA**

**Argitarabetea:** DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR ETXEA. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOIA (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

**Danbolin:** NAIARA EXPOSITO, AMAIUR ARISTI, URKO CANSECO, SARA MASCUCANI, NAIARA OLAIZOLA, ITSASO ZUBIRIA, JONE BERGARA ETA ITSASO WALIÑO

**Kolaboratzaile/erantzule taldea:** NAGORE GELLERIA, JON ARGANO, FERNANDO ARZALLUS,

ONINTZA IRURETA, MIREIA ORBEGOZO, NEREA ODRIOZOLA, ITSASO ZUBIRIA, JANIRE DIAZ, ETA MAIALEN KORTADI

**Disainua eta maketazioa:**

ENEKO ARISTI

**Inprimategia:** GERTU (OÑATI).

Lege gordailua: SS-1108/2000

ISSN: 1576-9429





## GALDERA POTOLOA BOGA DIDAZU, RITA.

Agerikoa da gizartea aldatzen ari dela, eta horrek gizartearen arlo guztietan duen eragina ikaragarria da. Mundua txiki gelditzen ari da, eta informazio eta estimulu erauntsi batean bizi gara. Komunikatzeko modua aldatzen ari da.

Hizkuntzaren arloan, kezkarria da gertatzen ari den aldaketa. Erdararen presentzia handia da, eta, zoritxarrez, badirudi posible dela Euskal Herriko zenbait herritan euskara jakin gabe bizitzea. Gurea bezalako herri txikietan, oraindik, euskara nagusi da, eta aukera daukagu horrek horrela izaten jarrai dezan. Hori lortzeko, ordea, beharrezkoa da hizkuntzarekiko kontzientzia izatea. Herritarrok geure buruari galdetu beharko genioke ea euskararen erabilerak kezkatzen gaituen eta euskaraz bizitzen jarraitu nahi dugun.

Euskara gehiago erabiltzeko modu asko daude. Lehena da edozein pertsonari aurreneko hitza euskaraz egitea, edo euskara ulertzeko gaitasuna duten pertsonekin euskaraz egitea. Kontziente izan behar dugu lehen hitzak erabat baldintzatu dezakeela komunikazio hizkuntza.

Ikasten ari diren herritarrekin ere pazientzia izan behar dugu, lagundu egin behar diegu, eta haiek babestu. Egiten ari diren ahalegina garrantzitsua da. Horregatik, gure jarrera irekia izatea komeni da, ausardiaz hitz egiten hasten direnean irribarre bat eskainiz eta arreta erakutsiz.

Era berean, ezinbestekoa da euskal kultura baloratzea. Euskal gizartean, zorionez, maila handiko profesionalak, adituak, sortzaileak... ditugu arlo guztietan. Garrantzitsua da horretaz harro sentitzea eta dugunaz jabetzea, euskarazko liburu, prentsa, musika, edukiak... kontsumituz.

Azkenik, Euskara Taldeak antolatutako ekimenetan edonork parte har dezake, herritar aktibo gisa, iritziak elkarbanatzen, ekintzak antolatzen, aurrera eramaten edota parte hartzen.

Gure esku dago euskararen ezagutza zabaltzea, egunerokoan erabiltzea eta ondorengo belaunaldiei maitasunez eta errespetuz transmititzea, euskarak dituen mugak gaindituz.

Marian El Boukhari: duela bederatzita urte etorri zinen Saharatik Euskal Herrira, eta euskaltegian euskara ikasten ari zara. Zer-gatik eman duzu pauso hori? Hasi zara euskaltegian ikasitako hitzak eta esamoldeak herrian erabiltzen?

*esti gabala*



## pintada. zer da zaintza?

Gure munduan ahalik eta hobekien bizi ahal izateko egiten dugun guztia da zaintza. Bizitzak sostengatzeko beharrezkoak diren lan horiek guztiak barnebiltzen ditu zaintzak. Kontzeptu zabala da, eta ez da menpekotasun edota zahartzaroko beharretara bakarrik mugatzen. Guztiok berezkoa dugun ezaugarri komuna da zaintza, beharrarena eta elkarreraginarena. Baina, zoritxarrez, egungo arazorik larrienarikoa ere bada zaintza krisia.

EHko Mugimendu Feministak eta Denon Bizitzak Erdigunean herri ekimenak azaroaren 30ean Greba Feminista Orokorra deitu dute. Hego EHko gehiengo sindikalak egoeraren irakurketa bere egin eta grebarekin bat egin du. Grebarekin, besteak beste, Zaintza Eskubide Kolektibo eta Zaintza sistema Komunitario eta Publikoa aldarrikatu nahi dira.

Zestoan ere, egungo zaintza sistemaren eraldaketan eragin nahi dugu. Zaintza eskubidea bermatu dadin, beharrezkoa da herritarren parte hartzea. Horregatik, herritarrek grebaren inguruko ekintzetara zein azaroaren 30ean greba egitera animatu nahi ditugu.

*greba feminista orokorra lantaldea*



## HEZIKETA TEKNOLOGIKORAKO HERRI PROIEKTUAK

Teknologia eta gazteak elkarri oso lotuta joan ohi diren bi eremu dira. Bionomio horrek eragin desberdinak sortzen ditu entzulearen belarri motaren arabera; batzuetan lilura (bereziki gazteen artean), bestean ordea; gorrotoa, etsipena, amorrua edo ernegazioa (irakasle, hezitzaile zein gurasoentzat).

Teknologia bere horretan ez da txarra,

gure bizitzarako beharrezkoa dugu. Eta gazteak ere ez dira gaizkileak; euren identitatea eraikitzeak eragiten duen frustrazioaren motxilak zapal dutako pertsonak baizik, zeinak teknologian aurkitu duten gaur egungo gizartean aurkitzen ez duten joko eremua.

Teknologia ez bada kaltegarria eta gazteak euren etorkizunaren jabe egiteko ahaleginetan baldin badabiltza, zergatik ez diegu laguntzen bide hori egiten?

Europako Batasunak aspaldi ikusi zuen digitalizazioak gure bizimodua ezaugarritzen duen aro honetan eta etorkizun ez oso urrun batean, formazio tekniko-zientifikoa duten profesionalen beharra handia izango dela. Hau da, egongo den beharra estaltzeko nahikoa profesional ez dela egongo. Horregatik, Bruselatik 2021-2027 epealdirako Hezkuntza Digitalaren Akzio Plana martxan jarri zuten europar parlamentariak. Besteak beste, gaur egungo haurren artean, zientzia eta teknologia eskuduntzak (STEAM bezala ere ezagutzen dena), sustatzea bilatzen dute, bereziki nesken artean; genero arrakala jakintza esparru horietan handia baita. Beraz, gazteak teknologiara erakartzea egokia baino premiazkoa da. Arazoa da erakartze horrek ezin duela mugatu soilik mugikorrean WhatsApp edo sare sozialak erabiltzera. Lorpena litzateke esaterako, egun Lehen Hezkuntzan dauden neska eta mutil horiek programazioaren magiaren liluraz estaltzea. Haurrek bide hori ordea ezin dute euren kabuz egin, hezkuntza sistemaren, irakasleen eta esango nuke, gurasoen laguntza behar dute. Baina goitik beharoko zerbaiten zain egon ordez, beste modu bat herri mailako proiektuak garatzea da eta ederra litzateke Zestoan eta oro har Urola bailaran, prestakuntza teknologikora bideratutako eta komunitatea barne hartzen duten egitasmo pedagogikoei bizia ematea. Ni amesteko prest, norbait gehiago animatzen al da?



**ATOMO EZJAKIN BATEAN GOGOETA.** Kontsumitzaileak gara ustez zoriontsu izateko, gerturik daukagu odola ahal dena erosteko...

Hilaren amaiera iristen ez bazara izorra hadi! Zurea da arazoa. "Haber estudiau" diote gazteek horrekin dena konponduko balitz bezala. Irakasle

ala funtzionario sar zintezke urte prekario batzuen ostean eta segi aurrera. Pantailaren bestaldean dago mundua, klik batean. Orain, berehala, Ya! Erdara hutsean. Algoritmo eta cookien diktadurapean, nora ezean, sare sozialetan. YouTube izarrak, tiktoker jainkotiarak, txiolari super-iraultzaileak, haustura generazionala eta ñabardura da bide bakarra.

Amazonik gabe bakerik ez (barka, paketerik ez). Panpinak legez Instagrameko erakusleioan. Eskerrak oraindik burua gelditzen zaigun erabakiak hartzeko, klik edo klak egiteko. Ase-ezinak gara frustrazio amaigabeen. "Zoriona da ideia komertzial bat" dio Xabier Amuriza handiak Argian. Poza, lagun eta jendearekin bizitako uneetan, ekimen berrien hastapenetan irrikak sorturiko poza, denok dakizkigun momentu horiek omen dira balioa dutenak.

Zelako krisi, halako bizi, ezin gaitezke superbizi. 100 ginen, 22, eta orain bakarrik gaude 2. Zu eta ni, ni ni ni ni.

"Bakarrik gaude inoizko komunikazio zubi gehien asmatu dugun sasoiari" gogorarazi digu Goizalde Landabasok Berriako zutabeen. Atomo bihurtu ote gara? Atomizazioa lorpena da garapen pertsonalean eta atzera pausua kolektibotasunean? Botila erdi betea ala erdi hutsa nola dakusazu zuk irakurle? Bada esperantzarik; norberaren atomotasun eta atomokeriak bazter utzita atomo-talde izan gintezkeela ondorioztatatu du. Atomoz osatuak daude molekulak, atomoak beharrezko baitira bere horretan.

Beste kontu bat da fisio nuklearra. Atomoa bitan edota gehiagotan banatzea. Bertatik eratorri oi den energia batez ere energia nuklearrerako sortzen da. Guk etxean kontsumitu edota bonba nuklearren leherketetan erabiltzen dena. Berriztagarrien aldekoa naiz zalantzarik gabe. Bonbak, komuneoak asko jota.

Bonba hotsak ditugu nagusi aspaldian munduko bazter ezberdinetan. Azkenak Palestinan. Hitlerrek judutarrak nola (gasa), Israelek Palestina hala (Gaza).



joseba alberdi

elizabeth pombo



# Lide Jimenez Bujanda

ARDUJAN

“KONPONBIDEA  
PAUSO BAT  
ATZERA EGITEA  
IZAN LITEKE”

MEDIKUNTZA IKASTEKO GOGO  
IZUGARRIA BAI, BAINA NAHIKOA  
NOTA EZ ETA BIOLOGIAKO  
LIZENTZIATURAN EMAN ZUEN  
IZENA LIDE JIMENEZ BUJANDAK,  
URTEBETE BERANDUAGO BERRIZ  
SELEKTIBITATEA EGITEKO  
ASMOTAN. BI ASTE IRAUN OMEN  
ZION PENAK, IZUGARRI GUSTATU  
BAITZITZAIZKION HASITAKO  
IKASKETAK ETA HORRI LOTUTA  
EGIN DITU LAN MUNDUKO LEHEN  
PAUSOAK: SAGUZARREN  
IKERKETAN, HAIN JUSTU.

**Biologia ikasi eta praktikak animaliekin egin nahi zenituela garbi zenuela diozu.**

Bai, naturarekin kontaktuan lan egin nahi nuen eta ugaztunekin. Horretarako aukera bakarra saguzarrak zirela-eta horrtan hasi nintzen, aurrena ikasle-laguntzaile moduan: mendira joan, irrati bidez saguzarrak jarraitu, non harrapatu aztertu... Gero masterreko lana ere arlo horretara bideratu nuen eta Eusko Jaurlaritzak martxan zuen saguzarren kontserbaziorako proiektuaren ardura hartu nuen. Helburua zen jakitea EAEn zenbat saguzar zeuden eta haien kontserbazio egoera zein zen.

Lan horretan sakontzen aritu nintzen hurrengo bost urteetan, Eusko Jaurlaritzak kontratatuta. EAeko saguzarren egoeraren ebaluazioa, balorazioa eta ekintza plan bat egin genituen. Babesleku handiak aztertu genituen. Saguzar talde ahalik eta handienak aztertzen ibili ginen, kolonia handiak, animalion populazioa neurtzeko eta egoera baloratzeko.

**Zein kopuruz ari gara kolonia handia diogunean?**

100-150etik gorako koloniak. Baina saguzar espezie guztiak ez dira kopuru handietan elkartzen. EAEn 27 saguzar klase badaude, bospasei



izango dira talde handietan elkartuta ibiltzen direnak. Beste gehienak bakanagoak dira.

### **Gaur egun ez zabilta ikerketan, irakaskuntzarako saltoa eman duzu.**

Momentu honetan Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan ari naiz irakasle lanean, bai. Lana eta semearen zaintza tartekatzen ditut.

Dibulgazioa maite dut eta gazteekin harremana izatea. Klasean egotea asko gustatzen zait. Baina hezkuntza sistemarekin ez naiz oso eroso sentitzen, nola funtzionatzen duen ordezkapen kontuak-eta... Nik gelan asko eman nahi izaten dut eta iruditzen zait hori ezinezkoa dela dagoen lan-karga kontuan hartuta. Ezinezkoa da hogeita hamar ikasleko klaseetan bost irakasgai emanda, hezkuntza duin bat eskaintzea.

Biologiako klasea gidatzea egokitzen zait batzuetan, baina beste edozer gai toka liteke. Kasu horietan ikasleekin zintzotasunez jokatzeko ahalegintzen naiz: "ni ere berria naiz honetan, ez dut sekula gai hau eman eta zuek adina dakit, beraz, denon artean egingo dugu eta joango gara aurrera; eta erantzun bat ez badakit bihar ekarriko dut, baina zuek ere bai". Uste dut jarrera hori orokorrean ikasleek eskertu egiten dutela. Harrokeriarik gabe.

### **Aizarnako saguzar gauean ere egin duzu dibulgazio lana, ezta?**

Bai, duela bi urte egin genuen lehen aldiz. Aurreneko partean saguzarrei buruzko informazio pixka bat eskaintzen dugu, orokorra eta Euskal Herriko espezieei buruzkoa. Bigarren partea praktikoagoa izaten da. Saguzarrak ekolokalizazio deitzen den sistema bidez orientatzen dira. Gizakiok aparatu berezirik gabe en-

tzun ezin ditugun ultrasoinuak dira ekolokalizazioak. Beraz, aurrena entzumen-jolas txiki bat egiten dugu eta gero, saguzarren ultrasoinuak gizakiontzat entzungarri egiten dituzten aparatu berezi batzuk eramaten ditut, ibilaldira bat eginez animalioek entzuteko asmotan. Ikusi eta entzun. Frontalekin eta detektoreekin ibiltzen gara; saguzarrak jendearengana gerturatzeko modu polita da.

### **Ez zaizu iruditzen jendeak beldurrarekin, banpiroekin, gaixotasunekin... lotzen dituela animalia hauek?**

Ezjakintasunagatik dela esango nuke. Munduan 1.200 espezie ezagutzen dira eta EAEn 27 dauzkagu, gurean denak intsektujaleak, ba al zenekien? Odola zurruputzen duten saguzar banpiroak ere badaude, baina Erdialdeko Amerikan eta Hego Amerikan bakarrik eta hiru espezie dira. 1.200etik hiru. Ikuspegi negatiboa dugu: animalia itsusiak omen dira; odolarekin lotzen ditugu; ustea dago habiak egiten dituztela teilatuetan eta egiturak karraskatzen dituztela... Baina ez dute egiturarik eraldatzen, dauden zirrikituak erabiltzen dituzte. Kaka eta txiza egiten dute, hori bai, eta ulertzen dut gogaikarria izan daitekeela. Baina onurak handiak dira. Intsektu pila bat jaten dute: eltxoak, sitsak, armiarmak...

### **Emaidazu datu bat.**

Ehiza gau batean saguzar batek bere pisuaren % 30 jan dezake intsektutan. Daubenton saguzararen kasuan, udaberriko udazkenerako tartean 60.000 eltxo jan ditzake. Kolonia osoa kontuan hartuz, ehunka tona eltxo.

Atera kontuak ekosistemaren oreka mantentzeko zer lan egiten duten.

### **Munduko saguzar guztiak ez dira intsektu jaleak.**

Ez, hemengoak bai, baina Ameriketako, esaterako, badira saguzar fruta-jaleak eta horiek zuhaitzen ugalketan laguntzen dute; fruta jan eta beste leku batean fruta horren haziak kakan botatzen baitituzte, haziak zabalduz. Badira saguzar polinizatzaileak ere eta zenbait landare-espezie saguzarrek polinizatuta bakarrik ugaltzen dira: tekila egiteko erabiltzen den *saguaro* kaktusa, adibidez; saguzar konkretu baten migrazio garaian loratzen da eta saguzar espezie hori nektar-jalea denez, hark polinizatzen ditu kaktus horiek.

Beraz, tekila gustuko duenak, zaindu ditzala saguzarrak!

### **Biodibertsitatea jasaten ari den galeraren aurrean, zein egoeratan daude Euskal Herriko saguzarrak?**

Euskal Herriko zenbait saguzar espezie desagertzeko zorian daude, beste zenbaitek, berriz, hobeto jakin du egoera berrietara egokitzen. Baina denak mehatxupean daude eta denak babestuta.

Habitat galera handia dago, pertsonok okupatu egin dugulako natura. Bake gutxi daukate animaliek. Espazioa behar dute; ehizatze lekuak behar dituzte, edatekoak, ugaltzekoak... Ehizatze lekuak edukitzeak esan nahi du presak ere bere espazioa behar duela, eta zirkuluan sartzen gara.

Saguzarrek, gainera, babeslekuak behar dituzte. Kumatzeko garaian lasaitasun handia behar dute, hibernaziorako ere bai, eta beren bizi-zikloa babeslekuei oso lotuta dago. Hezetasunari, neurriari eta tamainari dagokionez ezaugarri zehatz batzuk behar dituzte eta ez daude babesleku egoki asko.

Badaude gizakien eraikinetan eroso bizi diren espezie batzuk;





► elizako bobedetan edo baserrietako ganbaretan, adibidez. Baina espezie horiek eraikin horren jabearen erabakien guttiz menpe geratzen dira, edozein momentutan erabaki baitezake saguzarrak kanporatzea, intsektizida tratamendu bat egin eta animalioak hiltzea...

#### Zer egin dezakegu saguzarren alde?

Aberastasuna bilatu, elkarbizitza zaindu eta intsektizidarik ez erabili. Geroz eta intsektu gehiago eduki, anima-



lia gehiagok intsektu horiez elikatu ahal izango dute. Ebroko Deltako arroz-soroetan, adibidez, 2000ko hamarkadan arrozak ematen zituen irabaziak baino diru gehiago gastatu zuten intsektizidatan. Gastua etekina baino handiagoa zen, arroza jaten zuen sits bat zegoelako. Urte horietan arrozaren ekoizpena intentsifikatu ahala, bertako zuhaitzak eta flora suntsitzen joan ziren, horrekin batera fauna ere hilez; desoreka bat sortuz. Nola lortu zuten arazoarekin bukatzea? Saguzarrentzako etxeak eraikiz. Zuhaitzak simulatuz, etxetxoak jarri zizkieten saguzarrei eta lortu zuten intsektizidarik gabe arrozaren ekoizpenarekin jarraitzea, saguzarren populazioa berreskuratuz.

#### Beraz, zer egin dezakegu?

Ahal dela ez kendu elikagaiak intsektizida bidez, oreka mantentzen laguntzen baitute. Eta babeslekuak zaintzen ahalegindu. Baserrietako ganbarak, elizetako bobedak, kobazuloak... Badakit dena ezin dela, baina badaude akaso zaintzea merezi duten leku jakin batzuk. Legez babestuta daude, baina baliabideak falta dira lege horiek be-tearazteko.

Uste dut askotan ez garela kontziente zer garrantzia duten leku horiek, ez garela jakitun babestuta daudela... eta agian informazioa emanez gauza batzuk alda litezke. Etxeko ganbaran saguzarrak dituen arduratuta egon liteke teilatua puskatuko diotelakoan eta azaltzen bazaio ez dutela eraikinetan kalterik egiten, agian bertan utziko ditu lasai; edo akaso animalion kakak ematen dizkio arazoak eta urtean behin ganbara garbitzeko laguntza emanda konpon liteke. Hori esan nahi dut baliabideak eskaintzea diodanean. Edo kobazuloen kasuan, urte osoan ez bada

ere, kumatze- eta hibernazio-garaian jendea ez sartzeko itxiturak jarri litezke, saguzarrei beharrezko duten lasaitasuna bermatzeko.

#### Ebroko Deltako etxolak aipatu dituzunean Yoga etxearen ondoan jarritakoarekin gogoratu naiz.

Urte askoan Yoga etxearen azpiko garaje batean bi saguzar espezie kumatu izan dira. 150-400 indibiduoko taldea egoten zen udan eta bertan izaten zituzten umeak. Baina bukatu egin zaie bertan egoteko aukera. Gu horrelako kasuetan saguzarrak ez botatzeko konbentzitzen ahalegintzen gara. Hori bailitzateke, nire ustez, egokiena: berek aukeratuta duten tokian mantentzea. Baliabideak eskaintzen saiatzen gara. Baina bertan geratzea aukera

bat ez denean, geratzen den alternatiba bakarra da umeak izatera datozenean sartzeko ez uztea; behin barruan egonda ezin baitira kanporatu. Kasu honetan hori egin da. Aurten ez zaie sartzeko utzi eta Naturtzaindia elkarteak etxola hori eraiki du aldamenean, saguzarrei beste aukera bat eskain-



tzeko, leku hori oso maitea baitute. Halere, ez dira etxolan sartu, ez dute toki hori aukeratu.

#### Eta ez badugu egiten, nora goaz?

Pobreziara. Eta horrek ondorio handiak dakartza, desoreka handiak. Ahaztu egin zaigu faunarekin eta florarekin milioika urteko elkarbizitza bat izan dugula eta uste duguk daukagula konponbidea. Desoreka sortzean, guk daukagu konponbidea, momentukoa, azkarra, sinplea eta egokia: intsektizida. Eta horrek beste arazo batzuk ekarriko dizkigu. Gakoa aberastasuna da.

IBASO ZUBIRIA



# MANIFESTAZIOA

AZAROAK 4  
17:00  
EUSKALDUNA  
BILBO



  
AUTOBUSA  
BILBORA  
AZAROAK 4  
5€  
TXARTELAK PORTALEN

OLDARRALDIAREN  
EUSKARAREKIN  
BAT  
EUSKARAZ  
BAT  
AURREAN

# SOLASALDIA

AZAROAK 2  
18:00  
ALONDERO

## Auzitegietako azken epaiek nola eta zertan eragingo digute herritarroi?



**Iñigo Urrutia** - EHUko irakaslea

*Egoera latza da, izan ere planteamendu hauekin euskararen normalizazio prozesua erabat blokeatuta gelditzen da.*

*(2023/10/18 - Faktoria albistegia - Euskadi Irratia)*



**Miren Segurola** - UEMAko koordinatzailea

*Gure udalek argi dutena da euskaraz funtzionatzen jarraituko dugula, egin beharreko urratsak egingo ditugula. Baina, edozein egoeraren aurrean, ezpata bat gainean izango bagenu bezala uzten gaituzte.*

*(2023/10/17 - Goizak Gaur - Euskadi Irratia)*





ENTZUN AL DITUZU  
ZURRUMURRUAK? EGIA AL DA  
BIDAIA-AGENTZIA BAT IREKIKO  
DUTELA ZESTOAN? JAKIN-MINA  
ETA INTRIGA NAGUSITU ZIREN  
DUELA BI URTE UZTAPIDE  
PLAZAKO LOKAL HUTS HARTAN  
BERRIKUNTZA LANAK HASI  
ZIRENEAN. GAUR, XUBAN ALBIZU,  
26 URTEKO AKOARRAREN "FEEL  
MY WAY" BIDAIA AGENTZIA  
EZAGUTUKO DUGU. UTZIDAZU  
ZERBAIT AURRERATZEN: OHIKO  
BIDAIA-AGENTZIA IZATETIK OSO  
URRUN DAGO.



"Feel My Way" ren bulego dotorea bisitatu dut eta mozo-rratuta za-

baldu didate atea. Festa giroan daudela dirudien arren, Xuban Albizuk eta bere bazkide Martak, Norak eta Aintzane tartetxo bat atera dute nirekin egoteko. "Xuban, zer da zehazki 'Feel My Way'?", galdetu diot sartu bezain pronto. Ezin izan dio irrifarrari eutsi galdera entzun orduko. Zenbat aldiz egingo ote zioten nire galdera berbera? " 'Feel My Way' ez da ohiko bidaia-agentzia. 13 eta 18 urte bitarteko gazte-

entzat taldeko bidaiak antolatzen espezialistak gara, gure helburua bidaia bakoitza hazkunde pertsonaleko eta ikaskuntzako esperientzia bilakatzea delarik", erantzun dit Xubane. Uda garaia dirudien arren, hilabete pasa da jada eskolak errutinara itzuli zirela, eta nabari dute bulegoan, noski baietz! Nekaezin ari da lanean jada jaso dituzten eskari guztiei erantzun, eskola bakoitzarentzat proposamenak prestatu eta bidaiak antolatzen hasteko, gazteak inspiratuko dituzten esperientzia aberasgarriak sortzeko. "Gure programak ez dira bidaia hutsak; gazteei euren trebetasunak garatzeko eta beren pasioa aurkitzeko aukerak ematea da guk bilatzen duguna", azaldu du Albizuk.

#### AFIZIOA OFIZIO

Xuban Albizurentzat munduan zehar bidaiatzea ez da bere lehen aukera izan beti. Umetan, eskolako txangoak gorrotatzen zituen. Hala ere, batxilergoko bigarren urtean Europan zehar egindako bidaia batek bere ikuspegia aldatu zuen. Une erabakigarria izan zen, eta mundua esploratu eta ezagutzeko gogo piztu zitzaion. "Haurra nintzenez, ez zen eskolako txangoez gozatzen zuen pertsona horietakoa", aitortu du Xubane, eskolako egunak gogoratuz. "Baina zerbaite aldatu zen Europan zehar egin nuen bidaietan, batxilergoko bigarren mailan. Klik bat egin zidan

burmuinak, etengailu bat piztuko balitz bezala, eta bat-batean leku berriak esploratzeko eta kultura desberdinez gozatzeko gogo piztu zitzaion".

Bidaiekiko grina horrek Lidergo Ekintzaitza eta Berrikuntzako (LEINN) unibertsitate-ikasketak gauzatzera eraman zuen Xuban. Hain zuzen ere Arrasaten, Unibertsitateko lehen urtean ezagutu zituen Marta, Nora eta Aintzane bazkideak. Bertan erein zen 'Feel My Way' ren hasia. "LEINN-en ikasten ari nintzen, eta Nora, Aintzane eta Marta beste talde batzuetan zeuden. Bakoitzak bidaia mota desberdinak antolatzen genituen. Ni ikasturte amaierako bidaiak antolatzen hasi nintzen, eta haiek, berriz, udako kanpamenduak. Guztiok bidaiak amankomunean genituela ohartu ginen, eta indarguneak konbinatuz zerbaite berezia sor genezakeela pentsatu genuen". Lehen txinparta Indian piztu zen, karrerako hirugarren urtean. Dantzaleku batean erabaki zuten euren enpresa osatzeko lauren ezagutzak eta grinak batzea. "Indian geunden pausoa ematea erabaki genuen. Dantzaleku batean sortzen diren hizketaldi horietako batean... Zergatik ez elkar-tu? esan genuen", gogoratzen du Xubane. "Erabaki ausarta izan zen, baina bagenekien zerbaite berezia sortzen ari ginela". Hasieran unibertsitateko instalazioetatik egiten zuten lan, gero bulego bat utzi zieten Oñatin eta ondoren Ermura joan ziren. "Covid-19aren pandemiaren ostean, lekuz aldatu nahi genuela konturatu ginen. Bulegoa utzi eta urtebete eman genuen nire ganbaratik lanean. Orain, duela bi urtetatik

"Feel My Way"  
Bidaia-agentzia baina



egoitza propioa dugu hemen, Zestoan eta oso gustura gaude. Erosoa zaigu guztioi. Hemengoa naiz ni, eta nire bazkideak ere ingurukoak”, azaldu du. Duela zortzi urte sortu zenetik, ‘Feel My Way’-k 10.000 ikasle baino gehiago mugitu ditu European, Estatu Batuetan eta Irlandan zehar. Hasierak, baina, ez ziren errazak izan. 18 urte zituela hasi zen Xuban Azpeitiko Urola ikastolarako ikasketa bidaiak antolatzen. “18 urte besterik ez nituela, nire lehen kontratua lortzeko Halcon Bidaiak eta Eroski Bidaiak bezalako agentzia indartsuekin lehiatu nintzen Urola Ikastolako gelatxo batean”, ekarri di gogora Xubanek. “Nire harridurarako, nire proposamena aukeratu zuten eta taldeko bidaien munduan nire ibilbidearen hasiera markatu zuen”. Pixkanaka pixkanaka, bere zerbitzuak beste eskola batzuetara hedatzen joan zen Albizu. Martak, Aintzane eta Norak, hasiera batean, Interraileko bitxanda antolatzen zituzten, eta helmuga bakarrazuten Estatu Batuetako udako kanpamenduetarako. “Indarrak batu genituenean Estatu Batuetan beste helmuga bat gehitu genuen. Texas eta Missourira bertako familietara antolatzen ditugu egun bidaiak uztailean, Irlandara joateko aukera ere gehitu genuen eta Trepik Interrail programari eusten diogu”. “Zer da Trepik, baina?”, galdetu nion nik. Gainontzeko programak ez bezala, zeharkako trebetasunak garatzeko diseinatutako Europako Interrail bat da. Gazteek trenez esploratzen dute

mundua, empatia garatuz eta hazkunde pertsonala sustatzen duten esperientziak bizitzen. Estatu Batuetara edo Irlandara joatean helburua ingelesa ikastea bada, Trepik bidaietan ez da garrantzitsuena”.

#### BIDAIK BAINO ASKOZ GEHIAGO

Hala ere, ‘Feel My Way’-n ez dira bidaiak antolatzera mugatzen. Agentzia, gazteak inspiratu eta hezi nahi dituzten hezkuntza-programetan eta ekitaldietan ere aktiboki inplikatzeko da. “Feel My Way bi zatitan banatzen da. Batetik bidaiak ditugu, eta bestetik programak”, azaldu du Albizuk. “Eurek prestatzen dute programe-tariko bat, ‘Zuk Zeuk’, 2030erako Garapen Jasangarriko Helburuetan zentratzen da. “Gazteen artean al-daketa positiboa sustatu nahi dugu jolas- eta hezkuntza-esperien-tzien bidez. Bidaiak antolatzeaz



Feel My Way":

Agentzia bat  
no askoz gehiago





gain, hazkunde pertsonalerako eta ikaskuntzarako aukerak ere sortzen ditugu".

Hezkuntza eta gobernu-erakundeekin egiten dute lan ekitaldi horiek esperientzia eraldatzaileak izan daitezzen. GJH helburuak lantzeko hainbat erronka prestatzen dituztela azaldu du Xubanek eta "500-600 ikasle inguruk hartzen du parte". Enpatiatik hasi eta iraunkortasunera arte doazen erronkei egin behar die aurre. Gainditzen dituzten einean, puntuazio bat lortzen dute eta puntuen araberrako sailkapen bat egiten dugu. Parte-hartzailerak guztiek ikasbidaiak antolatzekeo deskontu bat lortzen dute, eta lehen 200 sailkatuek aparteko deskontu bat Hondarribiko edo Orioko aterpetxean asteburu bat igarotzeko. Bertan, Euskal Herriko hainbat gazte elkartzeko 'Feel My Way' eta hainbat jolas egiten dituzte, betiere Garapen Jasangarriko Helburuak modu ludikoan lantzea helburu izanik.

#### ERRONKAK GAINDITUZ

COVID-19aren pandemiak erronka handiak ekarri zituen berarekin. nola ez, bidaien industriarentzat kolpe gogorra izan zen, eta 'Feel My Way' ez zen salbuespena izan.

"Bidegurutze batean egon ginen", gogoratzen du Xubanek. "Hau-narketarako eta egokitzapenerako unea izan zen". Hala ere, gelditu beharrean, agentzia egokitu egin zen: "Pandemia iritsi zenean, bidaiak murriztu egin ziren, eta horrekin batera talde-bidaiak. Debekuak gutxituz joan zirenean, talde txikietan bidaiatzeko aukera eman zuten. Guk talde handiak mugitzen genituen, gazte helduagoentzako bidaiak antolatzekeo marka bat ateratzea bururatu zitzaigun (18-25 urte bitartekoentzat)", aipatu du Xubanek. Arrakasta izan zuen arren, normaltasuna itzuli bezain pronto proiektu hori ere alde batera utzi zuten, baina. Bestalde, ordura arte presentzial egiten ziren 'Zuk Zeuk' gisako programak digitalki egitea erabaki zuten. "Pandemia aurretik Zuk Zeuk lehiaketa Kursoalean egiten genuen. Itxialdian sartu eta bi egunera genuen ekitaldia. 500-600 ikasle inguru bildu behar genituen, monitorea, dekorazio guztia jada prest zegoen... izugarriko pena izan zen".

Orain, atzera begiratu eta egoera gogor hura begi onez ikusten du Albizuk: "Behin pasa ostean konturatu naiz pandemia guretzat gerta zitekeen onena izan zela. Une horretan, 20 urterekin, ez geuden prest elur-jausi horri aurre egiteko, 2.000 ikasle munduar zehar eduki eta gainera ekitaldi horiek guztiak antolatzekeo". "Zaplazteko galanta" izan zen, baina egokitzapen horri esker, egun ikasle gehiagorengana iristeko aukera dute.

#### ETORKIZUNARI BEGIRA

Ordularia aurrera doala konturatu eta azken galdera bat egin diot Xubani, jada askok egindako beste galdera bat: Pentsatu al duzue inoiz bidaiak agentzia konbentzionalek eskaintzen dituzte zerbitzuak ematea? "Aukera bat da, baina oraingoz, egungo taldeekin egiten dugun lana hobetu nahi dugu", esan dit irrifar bategin. "Urtero etortzen da norbait galdetzerako, eta gertuko bada antolatzen diogu bidaiak. Oraingoz, baina, ez da gure fokua nagusia. Zazpi pertsona ari gara lanean eta topera gabilta. Aurrerago, ikusiko da".





# AUTOBUSAK URTEBETE

AUZOBUSAK EGUNERO EGITEN DUEN IBILBIDEA EGIN DUGU ASTELEHEN BATEZ. ZESTOATIK ATERA GARA AIZARNARA. SEI GAZTE SARTU DIRA. IRAETAKO FUTBOL ZELAIRA DOAZ. BIDAIA APROBETXATZEN HASI DIRELA ESAN DIGUTE, BESTELA, MUGI TXARTELAREKIN, IRAETARA JOATEA ZUMAIARA BESTE KOSTATZEN OMEN DA ETA.

Aizarna iritsi garenean lau gaztetxo sartu dira. Bat Iraetara doa eta gainontzeko hiruak kiroldegira. Aizarnan helduekin bi hitz egiteko tartea izan dugu. Argi esan digute: "jaisteko ondo dago, baina igotzekoa falta". Izan ere Aizarnan goizeko 8:45ean daukate aurrenekoa. Erosketak egitera jaisteko, Correos edo anbulatoriora joateko ondo omen dago, baina igotzeko ez dutela arratsaldeko 16:45ak arte diote. Eta arratsaldean, berdin, 16:45ean dute behera jaisteko aukera. Hori Iraetara, kiroldegira eta eskolaz kanpoko jardueretara datozen gaztetxo askok erabiltzen omen dute, baina amaitzean gurasoek beraien bila jaitsi behar izaten dute. Horrez gain, tarteka bederatziz plazakoa txikitxo geratzen zaiela ere aipatu dute.

Aizarnarren esanetan, auzotarren arazo handiena igotzekoa izan da beti. Jaisteko, plaza barrenean pixka batean egonda, erraz tokatzen omen da Iraetaraino gutxienez jaitsiko zaituen norbait. Zestoan igotzeko aurkitzea zailagoa da, ordea. Horri tiraka auzotar batek bota du ideia: "agian, Zestoan auzotarako-geralekua edo jartzea ez legoke gaizki, eta Aizarnara edo Arroagora autoz doanak ohitura hartu dezala geralekuan norbait ote dagoen begiratzekoa".

Ohiko aizarnarrez gain, ezohiko jendeak ere noizik eta behin erabiltzen duela aipatu digute zerbitzua; bazkaltzera edo paseora Aizarnara doanen bat... Aizarnatik jaitsi eta jarraian Arroagora abiatu gara. Joaterako jakinarazi dit gidariak azken aldi inor ez dela ez igotzen, ez jaisten. Hasieran, emakume bat ia egunero herrigunera ekartzen omen zuten gero han lineako autobusa hartzeko baina ikasturte honetan falta omen da. Beste emakume bat behin edo behin azokara ostiraletan jaisten da.

## URTEBETE ETA GERO BALORAZIOA

Oraintxe beteko da urtebete Udalak Auzobus zerbitzua martxan jarri zuela. Aizarna eta Arroagoiko auzotarrek lanegunetan dohainik balia dezaketen zerbitzua da Auzobusa. Egunean bina bidaia egiten ditu auzoetako bakoitzera eta bidaia hauek Iraetan geralekua izaten dute.

Zestoako Udalak zerbitzua martxan jartzerako emandako azalpenen arabera, herriak duen azalera eta auzo kopurua ikusirik "hainbat zerbitzu kudeatzeko orduan zailtasun erantsiak ditu. Besteak beste, Gipuzkoako hainbat udalerrri txikik baino biztanle kopuru handiagoa izan arren, horiek udal entitate juridikorik ez dutenez Gipuzkoako Foru Aldundiaren garraio sistematik kanpo geratzen dira, eta Udalak ez dauka garraio sistema publiko osoa bere gain hartzeko ahalmenik". Hala ere, Udalak bere baliabideekin behin-behineko zerbitzu pilotua martxan jartzea erabaki zuten iaz bederatziz plazako ibilgailua egokিতuta. Urtebete pasata, emaitzak ikusi eta Gipuzkoako Foru Aldundiko mugikortasun sailarekin hitz egin ondoren, Mugi sisteman sartzea zen Udalaren orduko helburua. Orain ebaluatuko dute zerbitzua eta aurrera begirako bide zein izango den erabaki.

jone bergara





# danbolin.eus



## BIDE BERDEKO BI TUNELAK IREKITZEKO LANAK URTEA AMAITU AURRETIK ESLEITUKO DITUZTE

Eusko Jaurlaritzak bide berdeko bi tunelak (Iraeta) irekitzen hasteko lanen kontratazioaren lizitazioa urtea amaitu aurretik aterako duela jakinarazi du Zestoako Udalak. Hori horrela, bide berdearen lanak "epe ertainean" martxan jartzea espero du erakundeak.

Tunelek egokitzapenak amaitutakoan, Foru Aldundiak izango du plataformako lanak egiteko ardura. Udalak azaldu du bide berdearen lanak asko luzatzen ari diren arren, albiste ona dela esleipenarena.



## EZKUR BILKETA

Artadiak berreskuratzeko ezkur bilketa egin zen urriaren 14an Zestoako, Itziarko eta Mendaroko udalek antolatuta eta Naturtzaindiaren laguntzarekin. Goizeko bederatzietan atera ziren parte hartzaileak plazatik, eta handik Aizarnara joan ziren bidean ezkurak biltzen zituzten bitartean.



## BEHARRA DUTEN IKASLEEK LAGUNTZA IZANGO DUTE BIDELAGUNA EGITASMOARI ESKER

Eskolan laguntza behar duten ikasleei bideratutako errefortzu saioak izango dira urritik maiatzera bitartean aurtengo ikasturtean Zestoako Herri Ikastetxean.

Ikasturte berriarekin batera Bidelaguna egitasmoa jarri da martxan. Egitasmo honi esker, eskolan laguntza behar duten ikasleek eskolaz kanpoko ordutegian laguntza jasotzeko aukera izango dute. Eskolak erabakiko du, beharraren arabera, zein ikasle joango diren laguntza edo errefortzu saio horietara, eta baita iraupena ere. Izan ere, zenbait ikaslek ikasturte osoan zehar beharko dute laguntza eta beste zenbaitzuk hilabete gutxi batzuetan bakarrik.

Astelehenetik ostegunera izango dituzte ordu beteko errefortzu saioak. Hiru talde hasi dira saio hauetan, eta eskolak aukeratutako hiru hezitzaile izango dira eurekin eskolako lanetan laguntzen.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak bideratzen duen egitasmoa LHko hirugarren zikloko eta DBHko lehenengo zikloko ikasleei bideratua dagoen arren, Zestoako eskolan LHko bigarren zikloan ere hasi dira saio hauek eskaintzen. Zestoako Udalak, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza bidez finantzatu du bigarren zikloko ikasleen errefortzu saio hauek martxan jartzea, lehenagotik hastea lagungarria izan daitekeelakoan.



## KIROLDEGIKO ATERPEAN EGURREZKO HABEAK JARTZEN HASI DIRA





### MAGIA POTOAK EMAN DIO HASIERA AURTEN AEKko IKASTURTEARI

Zestoako kaleak eta tabernak ilusioz bete zituen urriaren 19an Asier Kidam magoak. AEKko irakasle, ikasle ohi eta berriek ikasgeletatik kanpo elkartzeko aukera izan zuten eta giro alaiari euskaraz eta magiaz gozatu.



### "KONTAIDAZU IPUIN BAT" AISIALDIA EUSKARAZ

Hirugarren urtez jarraian, Euskararen Foroak bultzatuta "Kontaidazu Ipuin Bat" egitasmoa jarri da martxan. Helburua haurren aisialdian ere, euskararen erabilera sustatzea da, gazteek hizkuntza giro lasaian praktikatzeko aukera eskainiz. Ipuin kontaketa liburutegian egingo dira bi astez behin, asteartetan eta herriko haur guztiak daude parte hartzerako gonbidatuak.



### PALESTINARI ELKARTASUNA ADIERAZI DIOTE HAINBAT HERRITARREK

Zestoako Gazte Asanbladak deituta, Palestinari elkartasuna adierazteko elkarretaratzea egin zen urriaren 12an plazan, "Erresistentziarekin elkartasuna, Palestina askatu!" lelopean. Hainbat herritarrek bat egin zuten deialdiarekin.



### ANTTON AO POVO HERRI PLATAFORMAK ANTTON OLAIZOLAREN DEPORTAZIOAREKIN AMAITZEKO GARAIA DELA ALDARRIKATU DU

Antton Ao Povo herri plataformak deportazioarekin amaitzeko eta Antton Olaizola herritarren eskubideak aldarrikatzeko agerraldia egin zuen urriaren 7an Kultur Etxe aurrean. Amaieran, datorren urriaren 28an plazatik abiatuko den manifestazioan parte hartzeko deia ere luzatu zuten.





Zestoako Udala



*"Senti-pentsalariak gustatzen zaizkit, bihotza eta arrazoia bereizten ez dituen jendea. Aldi berean sentitu eta pentsatzen duena. Burua eta gorputza, arrazoimena eta emozioa banandu gabe"*  
(Eduardo Galeano. El libro de los abrazos. 2003)

## usteak erdia ustel

'Zu "etniko",  
ni normala'



[Komunikabideetan] dantza sufiarra "etnikoa" da, vals vienarra, ez. Siriako jatetxe bat "etnikoa" da, hanburbesategi bat edo pizzeria bat, ez.  
(...)  
"etniko" adjektiboa "aurreratutzat" homologatuta ez dauden herriei buruz baino ezin da erabili kazetaritzan.

Manuel Delgado,  
1996/12/23 El País



Sentitu, informatu, **hausnartu** eta, ondoren, ekin

Nafar hegoaldeko uzta  
euskarari puzka

# 10 urte bete-bete

urriak 20 - azaroak 9

Saskien balioaren %25  
Nafarroa hegoalde eta  
erdialdeko euskalgintzara  
bideratuko da

Eskatu saskia



errigora.eus



# adinekoen txokoa

Joxemari Olaizola, 'Riki' rekin solasaldian

Urriaren lean Pertsona Helduen Nazioarteko Eguna ospatu da eta Pentsiodunen Mugimenduak astelehenetan, pankarta bidez aldarrikapenekin jarraitzen duzue. Merezi al du?

Bai, noski. Hobekuntzak, ez dira egun batetik bestera lortzen. Zaharrok erraz baztertzen gaituzte eta gure arazoak ezkutuan gordetzen dira. Pertsona asko ekonomikoki gaizki pasatzen ari dira; bereziki, alarguntasun pentsio zaharrekin bizi diren hainbat emakumeren egoera gordina da.

Bost urte daramatzazue martxan eta gero eta gai gehiago ari zarete lantzen...



Pentsioen igoera bizitzaren parekoa izatea lortu da, baina 1080 euroko gutxiengoa ez. Zaintza ere, etxeetako batez ere, hobetu beharreko beste kontu bat da. Pauso handi bat eman beharra dago, bai zerbitzu eta bai diru laguntzetan. Osakidetzako egoera ere, ez da oso baikorra, hainbat kasutan, urtebeteko epeak ematen baitituzte. Banketxeek aberastu eta aberastu jarraitzen dute, baina bezerooi zerbitzu gero eta penagarriagoak eskainita.

**Astelehenetan zenbat lagun elkartzen zarete?**

Duela bost urte hasi ginenean 40/50 bat elkartzen ginen. Orain astero 20 bat inguru izaten gara. Deialdi berezi batzuk egin izan ditugu, Kutxa bankuaren aurrean, edota Osakidetzako langileei elkartasuna adierazteko. Horietan 80 lagunetik gora ere bildu izan gara. Gai batzuekin jendea haserre eta sentsibilizatuago dago, baina asterokoari eustea garrantzitsua da zerbait lortu nahi bada. Ez da ezer kostatzen astelehenetan, eguerdiko 12:00etan bertaratzea indarrak batuz. Arazo horien aurrean norbera non kokatzen den adieraztea da kontua. Gazte batzuk ere etorri izan dira elkartasuna adieraztera eta poz handia ematen digute.

Pentsionistak Martxan taldea

 **Fisioterapia  
Osteopatia**  
- 943 29 08 99 -  
Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa

*Surya Paz Marticorena*  
  
**Osteopatia - Kirol masajea**  
☎ 605 765 140 📍 Portalea kalea 1, Behea B - 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)

Gesalaga kalea 20  
Zestoa 20740



mizuclicinacental@gmail.com  
ZURINE ECHEBERRIA RENOBABLES COLEG. 797  
IDIOIA ECHEBERRIA RENOBABLES COLEG. 868

Tel.: 943 14 78 28

  
**ZESTOAKO SAN JUAN FUNDAZIOA**  
1919-2019  
Bidezarra, 5 20740 Zestoa 943 147 019  
e-posta: zestoakosanjuan@gmail.com  
www.zestoakosanjuan.blogspot.com

**Taxi Zestoa**  
  
♿ 9 Eserleku  
Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 906

  
**GISASOLA**  
EGOITZA - RESIDENCIA  
Toribio Altzaga 6 - Zestoa  
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com

  
**Botika - Laborategia  
ZURUTUZA**  
Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006  
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org

  
**Gestoria Zubia**  
M<sup>a</sup> Jesus Zubia Olaizola  
Portalea kalea 7, behea - 20740 ZESTOA  
Tel./FAX: 943 897 070

  
**LINTERNERIA  
SANTA CLARA**  
Tel. 943 851 868  
e-posta: lintsantaclara@hotmail.com



# OPINIA



Nik ez det sinisten egia esan. Hardun nengoela inguruan denek ilargi kontuak aipatzen zizkidaten eta nik matronari galdetu nion eta esan zidan azterketa asko eginda daudela baina ezin dela eragin zuzenik daukanik esan.

**iranzu alberdi**  
44 urte



Ileapaindegian eta ikusten dira horrelako kontuak, ilberheran ilea mozten... Nik sinisten dut ilargi beteak eragina duela jendearen

**ines erkizia**  
56 urte



Nik ez dut sinisten, baina Gipuzkoan asko entzuzan dut esaera hori. Lehen Valentzian bizi nintzen eta han ez zen horrenbeste entzuten. Nire herrian Pakistanen egutegia, ilargiaren arabera da, baina ez dugu bere eraginean sinismenik.


**zafar hussain**  
46 urte



Bai sinisten dut. Baratza kontuan eta eragina baduela, ilgora eta ilberhera...

**mikel etxeberria**  
65 urte

## ILARGIAREN ERAGINEAN SINISTEN AL DUZU?



(Erantzuleak guztira: 114)

■ Bai  
■ Ez



Kultur Etxeko sarrerako eskaileretako argitxoak puskatuta eta arriskutsu daude



Harrizko lubeta berria egin dute Zubimusu etxe ondoan



# KIMUBAT

## URRIA

**27** **OSTIRALA**  
Txikitahunian  
Haundi Arroabean. 17:00  
Potx pailazoak. 19:00  
Pintxopote musikatua eta  
Nokonoren kontzertua.  
22:00 Mus txapelketa.

**28** **LARUNBATA**  
19:00 Aire Ahizpak Aizarnako  
elizan. \*17:30 Adabaki antzerkia  
Arroagoian. \*Txikitahunian Haundi  
Arroabean. 11:00 Sakulupe parkeko lanen  
amaiera auzolanean. Ondoren mokadutxoak.  
16:30 arroarren arteko jolasak. 20:00  
Trikipoteoa. 21:00 Bertso Afaria. \* 18:30  
Antton Ao Povo plataformak deituta  
manifestazio ixila plazatik hasita.

## AZAROA

**01** **ASTEAZKENA**  
15:30-19:30 Puzgarriak  
Arroagoian.

**02** **OSTEGUNA**  
18:00 Euskara Foroak deituta  
solasaldia Alonderon Iñigo Urrutia eta  
Miren Seguiolarekin. "Auzitegietako azken  
epaiek nola eta zertan eragingo digute?".

**04** **LARUNBATA**  
12:00 Organo kontzertua Loreto F.  
Imazekin Aizarnako parrokiaren.  
\*Kontseiluak deituta eta Zestoatik Udalak  
eta Euskara Foroak bultzata, Oldarraldiaren  
aurrean euskarerekin bat, euskaraz bat  
manifestazioa Bilbon 17:00etan.  
Autobuserako txartelak Portalen.

**05** **IGANDEA**  
Arrua Bira Arroabetik aterata.

**07** **ASTEARTEA**  
Kontaidazu ipuin bat liburutegian.

**Ga** **ZTELEKUAN EGITARAUA**  
**03** **OSTIRALA**  
22:00 Kontzertuak: Rodeo, Inoiz ez  
eta Disnomia.

**10** **OSTIRALA**  
18:00 Hitzaldia: "Ekialde Hurbila,  
inperialismoa, erresistentziak eta posizio  
politikoak"

**11** **LARUNBATA**  
"Mendietan zentral eolikorik ez!"  
lemapean egun osoko egitaraua Sañu  
Bizirik eta Agiro mendi klubarekin.

**17** **OSTIRALA**  
18:00 Bakarrizketak

**24** **OSTIRALA**  
Kontzertuak: Labankada, Jipoituak  
eta Hoben.

**Sa** **MARTINAK LASAON**

**10** **OSTIRALA**  
8:00 txupinazoa. 8:30 Bertso  
afaria. Andoni Egaña eta Oier  
Etxeberriarekin. Trikitilariak Itzeder eta  
Txibilter.

**11** **LARUNBATA**  
San Martin euna. 11:00 Meza.  
Ondoren auzoko adinekoentzat  
hamaiketakoak elkartean. 12.30 haurren  
txupinazoa eta buruhaundiak. 13:00 Iago  
Magoaren magia ikuskizuna. 14:00 auzoko  
haur eta gaztetxoek bazkaria. 16:00  
puzgarriak frontoian. 17:00 txokolata.

**12** **IGANDEA**  
11:00: Lasaoko abere eta nekazal  
produktuen azoka-erakusketa. 11.30:  
Idikaiz txistulari taldea eta Ioritz eta Iraitz  
trikitilariak. Erraldoien eta buruhaundien  
kalejira.

**18** **LARUNBATA**  
20:00 Bandaren pop rock Santa  
Zezilia kontzertua bandak udaletxe azpian.  
\*Kintadetako bazkariak.

**19** **IGANDEA**  
Txikitahunian haundi azoka  
Arroabean.

**21** **ASTEARTEA**  
Kontaidazu ipuin bat liburutegian.  
\* 17:30 Ertxiña Musika eskolako banda  
txikiak eta triki-pandero taldeak Santa  
Zezilia ospatuko dute kalejiran.

**24** **OSTIRALA**  
Odol ateraldiak Alonderon.

## GA ZTELEKUAN URRIAN

**2:** twister erraldoia (3. zikloa).

**3-4:** twister erraldoia (DBH).

**9:** futbolen txapelketa (3. zikloa).

**10:** katilu-margoketa (DBH).

**17-18:** sukaldaritza: pizzak (DBH).

**19:** 15 baietz!, gaztelekuan (3. zikloa).

**21:** "mahai-jolasak" (2. zikloa). 16:45-  
17:45 edo 18:00-19:00. Izena eman behar  
da

**24-25:** emakumeenganako indarkeriaren  
aurkako MURALA (DBH).

**28:** "mahai-jolasak", gaztelekuan (1.  
zikloa). 16:45-17:45 edo 18:00-19:00.

Izena eman behar da.

**30:** jolas librea, gaztelekuan (3. zikloa).

## HAURRENTZAT JOLASAK, BARBANTXO AISIALDI TALDEAREKIN:

-3 eta 17: Arroabean.

-10 eta 24: Aizarnan eta Zestoako  
herrigunean.

-15: HH4-HH5eko haurrentzat saioa,  
gaztelekuan.



## EGIN ZURE ENKARGUA SANTU GUZTIEN EGUNERAKO.

Egun berezi honetarako zentroak  
edo lore-sortak behar badituzu  
jarri gurekin kontaktuan.

943 15 00 85 | [garden@kimubat.eus](mailto:garden@kimubat.eus)

 **KIMUBAT**  
— GARDEN

    
[www.kimubat.eus](http://www.kimubat.eus)



# ZESTOAN

*uste baino gehiago*

## Janaridendak

**ELORZA**  
janaridenda  
943 147 660

**ARRAINDEGIÀ**  
**KONTXI**  
ZESTOA 943 148 247  
AZPEITIA 943 811 946

**mian**txa  
943 147 015



**unide**  
egunero janariak  
943 558 005

**UZKUDUN**  
harategia  
Erdikalea, 5  
Tel. 943 147 023  
ZESTOA

## Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110  
**mairl**  
LOTERIA  
ESTANKON

**LOTXOLO**  
Tel. 943 147 133

**Zbitt**  
Tif. 943 148 010

## Etixerako osagarriak

**ONK**  
943 147 081-647 683 643

**UGARTE**  
burdindegia s.l.  
943 147 154

## Arropa eta oinetakoak

**IRAOLA**  
ZAPATEGIA  
617 269 408

**lili** 943 148 061

## Edertasuna eta ongizatea

*beatriz izeta*  
943 148 322

*karmele*  
943 147 832

**KERALA**  
ongizate txokoa  
679 885 173

**S**  
ESTILISTAK  
680 802 777

**ZESTOA**  
**ZURETZAT**